



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

**EBAZPENA, 2025eko irailaren 18koa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2025/1 jardunbidea emateko dena, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek 2025-2026 ikasturtean zehar betebeharreko jarraibideak izan ditzaten.**

2015eko uztailaren 22ko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Aginduak HABEk, bere jardura osoan eta HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek, helduen euskalduntzegintzaren jardun didaktikoan, bete beharreko gidalerroak eta obligaziozko erreferentzia-markoa ematen du.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen ditu eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatu.

Helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantzaketa uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak arautzen du.

HEOCak ezartzen duen helduei euskara irakasteko egitasmo didaktikoa giza zein dirubaliabidez hornitu ahal izateko, HABEren zuzendari nagusiaren 2025eko abuztuaren 18ko Ebazpenak udalen edo udal-erakundeen mendeko euskaltegiei, udal-titulartasuneko euskaltegi publikoei, 2025-2026 ikasturtean dirulaguntzak emateko baldintzak ezartzen ditu, eta HABEren zuzendari nagusiaren 2025eko irailaren 9ko Ebazpenak euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei, 2025-2026 ikasturteko euskara-ikastaroengatik, esleituko zaizkien dirulaguntzak arautzen ditu.

Horrenbestez, helduen euskalduntzegintzan 2025-2026 ikasturteari hasiera emateko unean, HABEren araudian indarrean jarritakoa egoki, garaiz eta zuzen izapidetzeko jardunbidea eta jarraibideak zehazteko

## **EBAZTEN DUT**

2025/1 Jardunbidea onartzea eta jakinaraztea, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek 2025-2026 ikasturtean zehar bete beharreko jarraibideak izan ditzaten, Ebazpen honen lehen eranskinean jasotzen den eran.

Donostian, 2025eko irailaren 18an



**Jokin Azkue Arrastoa**  
**HABEren zuzendari nagusia**